



ACT-MC-2017/0078

**KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA
AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN 2. GUTUN-AZALAK IREKITZEA**

Bileraren gai-zerrenda: *Sortaka Gipuzkoako Eskualde sareko eta sare lokaletako errepideetan eta bizikleta bideetan artapen eta ustiapen lanak egiteko (2-O-11/2017) zerbitzuen kontratuaren lizitazioan aurkeztutako eskaintzen 2.gutun-azalak irekitzea. SORTA A (EKIALDEA) ETA SORTA B (MENDEBALDEA).*

Eguna: 2017ko irailaren 29a

Hasiera/Amaiera ordua: 9:15/9:45

Tokia: Bide Azpiegiturarako Departamenduaren anitzeko 3. gela (Miramon pasealekua, 166).

Bertaratutakoak:

- Mahaiburua:** Silvia Pérez Yéboles, Errepideetako zuzendari nagusia.
- Mahaiburuordea:** Mikel Uribetxebarria Barrena, Kudeaketa eta Plangintzako zuzendari nagusia.
- Bokalak:** Iñigo Zufiria Zatarain, Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuko burua.
Sabin Zubiri Rey, Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontu-hartzailera eta Auditoretza Zerbitzuko ordezkaria.
Elixabete Martinez Iruretagoiena, Departamentuko idazkari teknikoa
- Idazkaria:** Miguel Fonseca de la Rosa, Kontratazio Zerbitzuko burua.
- Lizitatuak:** Ferroser Infraestructuras SA, Excavaciones y Transporte Orsa SL, Zerbitzu Elkarte SL, Campezo Obras y Servicios SA eta Urbycolan SL enpresen ordezkariak etorri dira.

2017ko irailaren 20an Kontratazio Mahaiak ireki zituen FERROSER INFRAESTRUCTURAS SA + SERKOM, GESTION Y SERVICIOS GRUPO MOYUA SL + EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA SL ABEB (1), ACCIONA MANTENIMIENTO DE INFRAESTRUCTURAS SA + CONSTRUCCIONES ZUBIEDER SL + CONSTRUCCIONES MARIEZCURRENA SL ABEB (2), API MOVILIDAD SA + CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS SA ABEB (3), SERBITZU ELKARTEA SL. + ASFALTOS URRETXU SA ABEB (4), ACEINSA MOVILIDAD SA + URBYCOLAN SL ABEB (5) eta VALORIZA CONSERVACIÓN DE INFRAESTRUCTURAS SA ABEB enpresen 1. gutun-azalak. Ekitaldian Kontratazio Mahaiak akats edo hutsune batzuk antzeman zituen. Emandako epean enpresa guztiak erantzun dituzte errekerimenduak eta ontzat eman du Kontratazio Mahaiak. Aipatu enpresek bi sortetan aurkeztu dute eskaintza. Ekintza honetan, 1.SORTAri dagozkion eskaintza teknikoak irekiko dira; eta gero 2.SORTAri dagozkionak.

Aipatutako lekuan, datan eta orduan, Kontratazio Mahaia eratu da 2. gutun-azalak jende aurrean irekitzeko, eskaintza teknikoak hain zuzen, kontratazio honen baldintza administratibo berezien agirian ezarri den bezala, balio judizio baten mende dauden irizpideen arabera eman behar delako haztapena, automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideak baitira. Ekintza honetan egiaztatuko da aurkeztutako eskaintzek agirian ezarritako irizpide guztiak (izenburuak) sartu dituztela euren eskaintza teknikoetan. Gero, irizpide horien edukia aztertuko ditu teknikariak puntuazioak esleitzeko.

Hasterako, idazkariak gogorarazi du 17.b) Prezioa.4. baldintza administratibo bereziak zer dioen: "Lizitatuak ez badu aurkeztu esleipen irizpideei buruzko dokumentaziorik, enpresa horren proposamena ez da baloratuko aztertzen ari den irizpideari dagokionez. Proposamenak ez dira, inola ere, esleipen prozeduratik kanpo utziko arrazoi horrengatik".

Bi sortetarako aurkeztu diren eskaintza teknikoak ireki ostean, eta ekitaldira bertaratu direnek oharrik edo erreklamaziorik egin ez dutenez gero, idazkariak gutun-azalen edukia balorazioa egiteko organo arduradunari (teknikoari) eman dio eta ekitaldia amaitutzat eman du.

Eta horrela jasota gera dadin egin da Akta hau, eta berau onartu ondoren egintza amaitutzat eman da.

Donostian, 2017ko irailaren 29an

PRESIDENTEA,

Sin.- Silvia Pérez Yéboles

IDAZKARIA

Sin.- Miguel Fonseca de la Rosa